

Txosnetan, giro berezia

Talde bik egin dute txosnak jartzeko eskaria eta egitarau zabala prestatu dute


 Aurtengo andramarie-tan giro ezberdinak aurkituko ditugu Bermeon. Giro berezia sortuko da, esaterako, txosnen gunean. Beste urte batez, Artza pilotalekuaren pareko kaian jarriko dituzte, «horixe baita txosnentsako lekurik egokiena», txosnen kokalekuari buruz galdetzean Udal arduradunek erantzuten dute-nez.

Leku horretan obra edo herri lan batzuk egiten aritu dira azken asteetan, baina Andramariak hasten direnerako amaituta egongo dira, eta, beraz, ez die inolako oztoporik eragingo ez txosneta arduradunei eta ezta bertara joko duten herritarrei ere.

Talde bik bakarrik eskatu dute aurtun jaietan txosnak jartzeko baimena: Amnistia-ren Aldeko Batzordeek eta AEK-k, hain zuzen. Kontuan izan behar dugu iaz bost txosna jarri zirela eta, aurtun, esan dugun moduan, hiru gutxiago jarriko dira. Dena dela, ez da giro onik faltako.

Agertokia eta ekitaldiak

Izan ere, agertoki bat eraikiko dute aurtun ere txosnen gunean, eta jaiek irauten duten bitartean, irailaren 8tik 16ra, ia egunero mota guztietako ekitaldiak izango dira bertan, ikusteko, entzuteko eta, nahi izanez gero, parte hartzeko.



Aurtun bi txosna baino ez dituzte jarriko Bermeon; iaz, berriz, bost jarri zituzten.

EGUNKARIA

egitaraua

Irailak 8, ostirala

22:30 Rock kontzertua: M.B.P. eta Emaio.

Irailak 9, larunbata

23:00 Musika eta malabareen ikuskizuna.

Irailak 10, igandea

20:00 Euskal Herriaren historiari eta kulturari buruzko hitzaldia. Hitzalaria: Alicia Sturtze idazle eta historialaria.

21:00 Txalapartarien emanaldia.

22:00 Herriko trikitilarien emanaldia.

Irailak 12, asteartea

20:00 Kale antzerkia.

Irailak 13, asteazkena

Presoen aldeko eguna

15:00 Bertso bazkaria. Bertsolariak: Xabier Arriaga Txipias eta Jon Lopategi.

20:00 Manifestazioa herriko kaleetan zehar.

00:00 Dantzaldia, Etzakit taldearekin.

Irailak 15, ostirala

00:00 Reggae gaua: Akatz eta talde sorpresa.

Irailak 16, larunbata

Gazteen eguna

15:00 Gazteen bazkaria.

17:00 Kalejira tinbaleroekin.

23:00 Rock kontzertua: MCD eta talde sorpresa.

okile
desarrollo de mobiliario

ALTZARIAK

Jai zoriontsuak
igaro

Landabaso poligonoa, 6
Tel. eta Faxe. 94 688 26 74
BERMEO (Bizkaia)

Egunkaria k

Jai zoriontsuak
opa dizkizue !!



AUTOS  **SERVICIO MULTIMARCA** Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ZOTASKA, S.L.

Askatasunaren bidea, 24 bis
Tel.: 94 618 70 73 / Faxe: 94 618 71 79
BERMEO

 **Landabaso Tailerrak S.L.**

 **Zerbitzu Ofiziala**

Mekanika, Elektrizitatea, Txapa eta Pintura
Landabaso Industrialdea z/g - © - Faxe: 94 688 29 71
48370 **BERMEO**

ISABEL

GARAVILLA KONTSERBAK, S.A.

Bermeotar eta bermeora
datozen guztioi jai zoriontsuak
opa dizkiegu

ZUBIAURTAR KEPA, 39
48370 **BERMEO**
Tel.: 94 618 70 25 - Faxe: 94 688 53 94
www.isabel.net